

2026KO Z FESTIBALEAN PARTE HARTZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK

El Punto Gunearen mugikortasun sarea.

Ikus 2. orrialdea

BASES DE LA CONVOCATORIA PARA PARTICIPAR EN EL FESTIVAL Z 2026

Red de movilidad de El Punto Gunea.

Ver página 7



2026KO Z FESTIBALEAN PARTE HARTZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK

1. Aurkezpena

El Punto Guneak 2026ko uztailaren 8tik 11ra Gironan egingo den Festival Z 2026an Nafarroako artista gazteei zuzendutako deialdia ireki du.

Ekimen honen helburua arte eszenikoen esparruan erreferentziazko testuinguru profesionaletara sortzaile gazteak hurbildu, eta beste artista, programatzaile, kultura-kudeatzaile eta sektoreko eragileekin harremanak sustatzea da.

Edizio honetan, Nafarroako bi artista gazte hautatuko dira, jaialdian parte hartu eta Estatuko arte eszenikoen ekosistema ezagutzeko, ikasteko eta harremanak sortzeko esperientzia baten parte izan daitezen.



2. Helburuak

Deialdiaren helburuak honako hauek dira:

- Nafarroako artista gazteei erreferentziazko espazio profesionaletara iristeko aukera ematea.
- Beste kultura-eragile batzuekin esperientzien trukea sustatzea.
- Sare profesionalak sortzea eta indartzea.
- Sorkuntza, ekoizpen eta erakusketa formatu berriak ezagutzea.
- Ikaskuntza eta ezagutzaren transferentzia sustatzea Nafarroako kultur sarean.
- Gazteen parte-hartze aktiboa bultzatzea arte eszenikoen ekosisteman.

3. Hartzailleak

Honako baldintzak betetzen dituzten pertsonak parte hartu ahal izango dute:

- 18 eta 30 urte bitartean izatea.
- Nafarroan bizitzea edo beren jarduera artistikoa ohikotasunez Nafarroan garatzea.
- Arte eszenikoekin lotutako edozein diziplinatan jardutea: antzerkia, dantza, zirkoa, performancea, dramaturgia, bitartekaritza, ekoizpena...
- Kulturaren arloan ibilbide profesional bat garatzeko interesa izatea.

Ez da beharrezkoa izango aurretiazko ibilbide profesionalik egiaztatzea.



4. Deialdiak eskaintzen duena

Hautatutako pertsonak honako hauek jasoko dituzte:

- Festival Z 2026rako akreditazio profesionala.
- Nafarroatik Gironara joateko joan-etorriko gastuak.
- Ostatu-gastuak egonaldian zehar.
- “Gran Boda Z” ekitaldiko bazkaria.

Antolakuntzak oinarri hauetan zehaztutako gastuak baino ez ditu bere gain hartuko.

5. Hautatutako pertsonen konpromisoak

Parte-hartzaileek honako konpromiso hauek hartuko dituzte:

- Antolakuntzak adostutako jarduera guztietara joatea.
- El Punto Guneak antolatutako prestaketa-bileran parte hartzea.
- Esperientzia osoan zehar errespetuzko jarrerak eta profesionalak mantentzea.
- Parte-hartzea dokumentatzeko balio duten edukiak, hausnarketak edo materialak partekatzea.
- Egonaldia amaitutakoan itzulera eta transferentzia saio batean parte hartzea.



6. Balorazio-irizpideak

Hautaketa El Punto Guneak izendatutako batzorde batek egingo du, honako irizpide hauek kontuan hartuta:

Motibazioa (50 puntu)

Eskatzaileak esperientzian parte hartzeko duen interesa baloratuko da, baita aukera honek bere garapen artistikoan, prestakuntzan edo ibilbide profesionalean izan dezakeen eragina ere.

Arte eszenikoekin lotura (30 puntu)

Eskatzaileak arte eszenikoekin duen harremana baloratuko da, sorkuntzaren, prestakuntzaren, proiektuetan, elkarrekin, konpainietan, jaialdietan edo kultura-arloarekin lotutako beste edozein jardueratan parte hartzearen bidez.

Ez da beharrezkoa izango aurretiazko esperientzia profesionalik egiaztatzea.

Aniztasuna eta transferentzia (20 puntu)

Profilen, diziplinen eta ibilbideen aniztasuna hartuko da kontuan, baita parte-hartzaileak esperientzian zehar eskuratutako ikaskuntzak Nafarroako arte eta kultura komunitatearekin partekatze duen interesa ere.



7. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Interesa duten pertsonak honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

Izen-emate formularioa: <https://forms.gle/SEiJUdJvQitiiG9m8>

- Ibilbide artistiko, profesional edo prestakuntzari buruzko curriculum laburra (gehienez 2 orrialde).
- Motibazio gutuna (gehienez 500 hitz).
- Lanen, proiektuen edo bestelako materialen estekak.

8. Egutegia

- Deialdiaren hasiera: 2026ko ekainaren 9a.
- Deialdiaren amaiera: 2026ko ekainaren 22a.
- Ebazpena: 2026ko ekainaren 23a.
- Prestaketa-bilera: 2026ko uztailaren lehen astean.
- Festival Z jaialdian parte-hartzea: 2026ko uztailaren 8tik 11ra.



9. Datuen babesari

Emandako datuak deialdi honen kudeaketarako bakarrik erabiliko dira, eta datuen babesari buruz indarrean dagoen araudia betez tratatuko dira.

10. Oinarrien onarpena

Deialdi honetan parte hartzeak oinarri hauek osorik onartzea dakar.



BASES DE LA CONVOCATORIA PARA PARTICIPAR EN EL FESTIVAL Z 2026

1. Presentación

El Punto Gunea abre una convocatoria dirigida a jóvenes artistas de Navarra para participar en el **Festival Z 2026**, que tendrá lugar en **Girona del 8 al 11 de julio de 2026**.

Esta iniciativa busca facilitar el acceso de jóvenes creadoras y creadores a contextos profesionales de referencia en el ámbito de las artes escénicas, favoreciendo el encuentro con otros artistas, programadores, gestores culturales y agentes del sector.

En esta edición se seleccionarán **dos artistas jóvenes de Navarra** que participarán en el festival formando parte de una experiencia de aprendizaje, intercambio y conexión con el ecosistema escénico estatal.



2. Objetivos

La convocatoria tiene como finalidad:

- Facilitar el acceso de jóvenes artistas navarras a espacios profesionales de referencia.
- Favorecer el intercambio de experiencias con otros agentes culturales.
- Impulsar la creación de redes profesionales.
- Conocer nuevos formatos de creación, producción y exhibición.
- Generar procesos de aprendizaje y transferencia hacia el tejido cultural navarro.
- Fomentar la participación activa de la juventud en el ecosistema de las artes escénicas.

3. Personas destinatarias

Podrán participar personas que cumplan los siguientes requisitos:

- Tener entre 18 y 30 años.
- Residir en Navarra o desarrollar de manera habitual su actividad artística en la Comunidad Foral.
- Desarrollar su práctica en cualquier disciplina vinculada a las artes escénicas: teatro, danza, circo, performance, dramaturgia, mediación, producción...
- Mostrar interés por desarrollar una trayectoria profesional en el ámbito cultural.

No será necesario acreditar una trayectoria profesional previa.



4. Qué ofrece la convocatoria

Las personas seleccionadas recibirán:

- Acreditación profesional para el Festival Z 2026.
- Gastos de desplazamiento desde Navarra.
- Alojamiento durante los días de participación.
- Comida de la “Gran Boda Z”

La organización cubrirá únicamente los gastos especificados en estas bases.

5. Compromisos de las personas seleccionadas

Las personas participantes se comprometen a:

- Asistir a la totalidad de las actividades acordadas con la organización.
- Participar en la reunión preparatoria convocada por El Punto Gunea.
- Mantener una actitud respetuosa y profesional durante toda la experiencia.
- Compartir contenidos, reflexiones o materiales que permitan documentar la participación.
- Participar en una sesión de retorno y transferencia una vez finalizada la estancia.



6. Criterios de valoración

La selección será realizada por una comisión designada por El Punto Gunea atendiendo a los siguientes criterios:

Motivación (50 puntos)

Se valorará el interés de la persona solicitante por participar en la experiencia, así como el potencial impacto que esta oportunidad puede tener en su desarrollo artístico, formativo o profesional.

Vinculación con las artes escénicas (30 puntos)

Se valorará la relación de la persona solicitante con las artes escénicas, ya sea desde la creación, la formación, la participación en proyectos, asociaciones, compañías, festivales o cualquier otra actividad vinculada al ámbito cultural.

No será necesario acreditar experiencia profesional previa.

Diversidad y transferencia (20 puntos)

Se tendrá en cuenta la diversidad de perfiles, disciplinas y trayectorias, así como el interés de la persona participante por compartir posteriormente los aprendizajes adquiridos con la comunidad artística y cultural de Navarra.



7. Documentación requerida

Las personas interesadas deberán presentar:

- Formulario de inscripción: <https://forms.gle/SEiJUdJvQitiiG9m8>
- Breve currículum artístico o profesional (máximo 2 páginas).
- Carta de motivación (máximo 500 palabras).
- Enlaces a trabajos, proyectos o materiales de apoyo (opcional).

8. Calendario

- Apertura de convocatoria: 9 de junio de 2026.
- Cierre de convocatoria: 22 de junio de 2026.
- Resolución: 23 de junio de 2026.
- Reunión preparatoria: primera semana de julio de 2026.
- Participación en Festival Z: del 8 al 11 de julio de 2026.



9. Protección de datos

Los datos facilitados serán utilizados exclusivamente para la gestión de la presente convocatoria y serán tratados conforme a la normativa vigente en materia de protección de datos.

10. Aceptación de las bases

La participación en esta convocatoria implica la aceptación íntegra de las presentes bases.